# II. ERANSKINA: PRIBATUTASUN LEHENETSIARI ETA DISEINUTIKO PRIBATUTASUNARI BURUZKO DONOSTIAKO UDALEKO JARRAIBIDEAK

## Aurkibidea

1. Xedea
2. Dokumentuaren irismena
3. Diseinutiko pribatutasuna
4. Pribatutasun lehenetsia
5. Neurrien aplikazio eraginkorra
6. Dokumentua berrikustea eta akreditatzea

## 1. XEDEA

Dokumentu honen xedea da Donostiako Udalak segitu beharreko jarraibideak ezartzea, diseinutik eta besterik adierazi ezean datuak babesteko printzipioak era egokian aplikatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren, 2016ko apirilaren 27koaren, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duenaren (aurrerantzean, DBEO) 25. artikuluari jarraituz.

Helburua da orientabideak ematea 25. artikuluko 1. apartatuan datuak babesteko betekizunei eta 25. artikuluko 2. apartatuan ezarritako moduan besterik ezean datuak babesteari buruz, eta neurri aplikagarriak zehaztea Donostiak datuak babestearen printzipioak berma ditzan diseinutik eta besterik adierazi ezean, datuen babesa presente egon dadin garapenaren hasierako fasetik, eta ez dadin izan gero erantsitako geruza bat.

## 2. DOKUMENTUAREN IRISMENA

Dokumentuaren aplikazio-eremuak eragina izango du objektuaren (sistema bat, hardware edo software bat zein zerbitzu edo prozesu bat) bizi-ziklo osoan pribatutasunaren babesa txertatzen duten

# ANEXO II: INSTRUCCIONES SOBRE LA PRIVACIDAD POR DEFECTO Y DESDE EL DISEÑO DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

## Índice

1. Objeto
2. Alcance del documento
3. Privacidad desde el Diseño
4. Privacidad por defecto
5. Aplicación Efectiva de Medidas
6. Revisión y acreditación del cumplimiento

## 1. OBJETO

El objeto del presente documento es establecer las instrucciones a seguir en el Ayuntamiento de San Sebastián para la correcta aplicación de los principios de protección de datos desde el diseño y por defecto, según lo establecido en el artículo 25 del del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE, en adelante, RGPD.

El objetivo es ofrecer orientaciones sobre los requisitos para la protección de datos desde el diseño establecidos en el artículo 25, apartado 1, y para la protección de datos por defecto establecidos en el artículo 25, apartado 2, respectivamente y definir las medidas aplicables para garantizar los principios de protección de datos desde el diseño y por defecto por parte del Ayuntamiento de San Sebastián, con el objeto de que la protección de datos esté presente desde las primeras fases de desarrollo y no sea una capa añadida.

## 2. ALCANCE DEL DOCUMENTO

El ámbito de aplicación del documento afectará a la gestión del riesgo y de responsabilidad proactiva para establecer estrategias que incorporen la protección de la privacidad a lo largo de todo el ciclo

12346n I

estrategiak ezartzeko arriskuaren eta erantzukizun proaktiboaren kudeaketan.

de vida del objeto (ya sea este un sistema, un producto hardware o software, un servicio o un proceso).

Ulertzen da objektuaren bizi-zikloa dela hark dituen etapa guztiak, pentsatzen denetik erretiratzen denera arte, eta, besteak beste, garapenaren, ekoizpenaren, eragiketaren, mantentze lanen eta erretiratzearen faseak.

Por ciclo de vida del objeto se entiende todas las etapas por las que atraviesa este, desde su concepción hasta su retirada, pasando por las fases de desarrollo, puesta en producción, operación, mantenimiento y retirada.

## 3. DISEINUTIKO PRIBATUTASUNA

## 3. PRIVACIDAD DESDE EL DISEÑO

Ukitutakoen eskubideak, DBEOaren 15. eta 22. artikuluen artean jasotakoak deskribatuta daude apartatu honetan.

Los derechos de las personas afectadas y contemplados desde el artículo 15 al 22 del RGPD y 13 al 18 de la LOPDGDD, quedan descritos en el presente apartado.

25. artikuluko 1. apartatuaren arabera, Donostiako Udalak, tratamenduaren arduradun gisa, neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak ezarriko ditu, datuak babesteko printzipioak aplikatzeko eta tratamenduak behar dituen berme guztiak txertatzeko, betekizunak bete daitezen eta interesdunen eskubideak eta askatasunak babesteko.

De conformidad con el artículo 25, apartado 1, el Ayuntamiento de San Sebastián, como responsable del tratamiento, aplicará las medidas técnicas y organizativas adecuadas concebidas para aplicar los principios de protección de datos e integrar las garantías necesarias en el tratamiento, a fin de cumplir los requisitos y proteger los derechos y libertades de los interesados.

12346n I

### 3.1 Printzipioak

### 3.1 Principios

Pribatutasun diseinutikoa eta lehenetsia zenbait printzipiok osatzen dute, eta horiek praktikan jartzeak ahalbidetzen du datuen segurtasuna bermatzea:

La privacidad desde el diseño y por defecto, se encuentra integrada por una serie de principios, cuya puesta en práctica permite garantizar la seguridad de los datos:

#### 3.1.1 Proaktiboa, ez erreaktiboa; prebentiboa, ez zuzentzailea.

#### 3.1.1 Proactivo, no reactivo; preventivo, no correctivo.

Diseinutiko pribatutasunak berekin dakar datuen babesaren alorrean jazo daitezkeen gertakariei aurre hartzea, hau da, interesdunen eskubide eta askatasunen arrisku posibleak identifikatzea eta minimizatzea, kalteak ekar ez ditzaten.

La privacidad desde el diseño implica, anticiparse a los eventos que puedan producirse en materia de protección de datos, es decir, identificando los posibles riesgos a los derechos y libertades de los interesados y minimizarlos para que no lleguen a concretarse en daños.

Horretarako, Donostiako Udalak hainbat neurri tekniko eta antolakuntzako hartu ditu, honako hau dakartenak:

Para ello el Ayuntamiento de San Sebastián, ha adoptado diferentes medidas técnicas y organizativas, que implican:

- Konpromiso garbia antolakuntzaren aldetik, udaleko maila gorenetatik bultzatu beharrekoa.

- Un claro compromiso por parte de la organización y que debe ser impulsado desde

- Konpromisoaren eta etengabeko hobekuntzaren kultura garatzea udalaren enplegatu eta/edo funtzionario guztiengan.

- Erantzukizun zehatzak definitzea eta esleitzea, antolakundeko kide guztiek jakin dezaten argi eta garbi zein diren pribatutasunaren arloan zein funtzio dituzten.

- Pribatutasuna bermatzeko emaitza kaskarrak ematen ari diren prozesuak eta praktikak goiz detektatzeko adierazleetan oinarritutako metodo sistematikoak garatzea.

### 3.1.2 Pribatutasuna, ezarpen lehenetsi gisa

Pribatutasuna ezarpen lehenetsi gisa izateak esan nahi du subjektuak ezarpen-ekintzarik egiten ez badu haren pribatutasunak bermatuta egon beharko duela, eta ukigabe mantendu beharko dela, sisteman txertatuta dagoelako eta besterik ezean ezarrita dagoelako.

Printzipio hori, praktikara eramanda, tratamenduaren etapa guztietan datuak minimizatzean datza: bilketa, erabilera, kontserbazioa eta zabalpena.

Horretarako, Donostiako udalak, gutxienez, honako neurri hauek hartuko ditu:

- Tratamenduaren xedera mugatutako bilketa-irizpideak ezartzea.
- Datu pertsonalen erabilera mugatzea bilketaren xede(eta)ra, eta bermatzea tratamenduk baduela zilegitasun-oinarria.
- Datu pertsonalen atzipenak mugatzea tratamenduetan inplikatutakoei.
- Kontserbazio-epe zorrotzak definitzea eta horiek betetzen direla bermatzeko eragiketa-mekanismoak ezartzea.
- Horma teknologikoak eta prozedurakoak ezartzea datu-iturri independenteak baimenik gabe lotzea saihesteko.

los escalones más altos del Ayuntamiento.

- El desarrollo de una cultura de compromiso y mejora continua por parte de todos los empleados y/o funcionarios del Ayuntamiento.

- Definición y asignación de responsabilidades concretas, de modo que cada miembro de la organización sepa claramente cuáles son sus funciones en materia de privacidad.

- Desarrollar métodos sistemáticos en base a indicadores para la detección temprana de procesos y prácticas que estén ofreciendo resultados deficientes en la garantía de la privacidad.

### 3.1.2 La privacidad como configuración predeterminada

La privacidad como configuración predeterminada significa que en el caso de que el sujeto no tome ninguna acción de configuración, su privacidad debe estar garantizada y mantenerse intacta, pues está integrada en el sistema y configurada por defecto.

Este principio, llevado a términos prácticos, se fundamenta en la minimización de datos a lo largo de todas las etapas del tratamiento: recogida, uso, conservación y difusión.

Para ello, el Ayuntamiento de San Sebastián, adoptará al menos, las siguientes medidas:

- Fijar criterios de recogida limitados a la finalidad que persigue el tratamiento.
- Limitar el uso de los datos personales a la(s) finalidades para la(s) que fueron recogidos y asegurarse de que existe una base legitimadora del tratamiento.
- Restringir los accesos a los datos personales a las partes implicadas en los tratamientos.
- Definir plazos estrictos de conservación y establecer mecanismos operativos que garanticen su cumplimiento.
- Crear barreras tecnológicas y procedimentales que impidan la vinculación de no autorizada de fuentes de datos independientes.

12346n I

### 3.1.3 Pribatutasuna, diseinu-fasean txertatuta

Diseinutiko pribatutasuna aintzat hartu beharra dago prozedura, zerbitzuak, softwarea eta abar diseinatzeko lehen etapetatik. Horretarako, Donostiako udalak, gutxienez, honako neurri hauek hartuko ditu:

- Sistemen eta zerbitzuen bizi-zikloan beharrezko betekizuntzat jotzea, b aita antolakundearen prozesuak diseinatzean ere.
- Pertsonen eskubide eta askatasunetarako dauden arriskuen analisia egitea, eta, hala badagokio, datuak babesteari lotutako inpaktu-ebaluazioak egitea, edozein tratamendu-ekimen berriren diseinuan.
- Antolakundean hartutako erabaki guztiak dokumentatzea.

### 3.1.3 Privacidad incorporada en la fase de diseño

La privacidad desde el diseño se debe de tener en cuenta desde las primeras etapas del diseño de procedimiento, servicios, software etc. Para ello, el Ayuntamiento de San Sebastián, adoptará al menos, las siguientes medidas:

- Considerar como un requisito necesario en el ciclo de vida de sistemas y servicios, así como en el diseño de los procesos de la organización.
- Ejecutar un análisis de los riesgos para los derechos y libertades de las personas y, en su caso, evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos, como parte integral del diseño de cualquier nueva iniciativa de tratamiento.
- Documentar todas las decisiones que se adopten en el seno de la organización.

12346n I

### 3.1.4 Funtzionaltasun osoa

Diseinutiko pribatutasunak aintzat orekatu egin beharko du pribatutasuna eta bestelako funtzionaltasunak, esaterako, erabilgarritasuna, funtzionalitatea eta abar. Horretarako, Donostiako udalak, gutxienez, honako neurri hauek hartuko ditu:

- Onartzea interes ezberdin eta legitimoak batera egon daitezkeela: Udalarenak eta zerbitzua jasotzen duten erabiltzaileenak; eta horiek behar bezala identifikatu, ebaluatu eta orekatu behar direla.
- Komunikazio-bideak ezartzea elkarlanerako eta interesdunei kontsultak egiteko.
- Proposatutako irtenbideak pribatutasunerako mehatxuak badakartza, irtenbide eta aukera berriak bilatzea lortu nahi diren funtzionalitateak eta interesak erdiesteok, baina begien bistatik galdu gabe era egokian kudeatu behar direla erabiltzaileentzako pribatutasun-arriskuak.

### 3.1.4 Funcionalidad total

La privacidad desde el diseño debe equilibrar la privacidad, con otras funcionalidades, tales como la usabilidad, funcionalidad etc. Para ello, el Ayuntamiento de San Sebastián, adoptará al menos, las siguientes medidas:

- Asumir que pueden coexistir intereses diferentes y legítimos: los del Ayuntamiento y los de los usuarios a los que presta servicio; y que es necesario identificarlos, evaluarlos y balancearlos apropiadamente.
- Establecer canales de comunicación para colaborar y consultar a las partes interesadas.
- Si la solución propuesta plantea amenazas a la privacidad, buscar nuevas soluciones y alternativas para alcanzar las distintas funcionalidades e intereses perseguidos, pero siempre sin perder de vista que deben gestionarse adecuadamente los riesgos para la privacidad del usuario.

### 3.1.5 Bizi-ziklo osoan pribatutasuna bermatzea

Horretarako, Donostiako udalak, gutxienez, honako neurri hauek hartuko ditu:

- Garaiz ezizenak erabiltzea edo anonimo egiteko teknikak.
- Datuak sailkatzea eta antolatzea eta sarrera-profilen araberako tratamendu-eragiketak.
- Ezer adierazi ezan zifratzea, datuen egoera “naturala”, galdu edo lapurtuz gero, “irakurtezina” izan dadin.
- Informazioa, bizi-zikloaren amaieran, era seguruan suntsitzen dela bermatzea.

### 3.1.6 Ikusgaitasuna eta gardentasuna

Pertsona fisikoentzat argi eta garbi egon beharko du haien inguruko datu pertsonalak biltzen, erabiltzen, kontsultatzen edo tratatzen ari direla, baita datu horiek zer neurritan tratatzen diren edo tratatuko diren ere.

Gardentasuna eta ikusgaitasuna sustatzeko, zenbait neurri hartu behar dira, besteak beste:

- Udalaren funtzionamendua arautzen duten pribatutasun-politikak eta datuak babestekoak publiko egitea.
- Informazio-klausula labur, garbi eta ulergarriak egitea eta argitaratzea, erraz eskuratzekoak, eta interesdunei aukera emango dietenak erraz ulertzeko zein den haien datuen tratamenduaren irismena, zer arrisku izan ditzaketen eta nola erabili behar dituzten datuen babesaren arloan dagozkien eskubideak.
- Publiko egitea, edo, gutxienez, interesdunek erraz eskuratzeko moduan jartzea antolakundeak egindako tratamenduen zerrenda.
- Antolakundeko pribatutasunaren arloko arduradunaren nortasuna eta kontaktua zabaltzea.
- Datuen titularrentzako komunikazio-, konpentsazio- eta erreklamazio-mekanismo irisgarri, soil eta eraginkorrak ezartzea.

### 3.1.5 Aseguramiento de la privacidad en todo el ciclo de vida

Para ello, El Ayuntamiento de San Sebastián, adoptará al menos, las siguientes medidas:

- La seudonimización temprana o técnicas de anonimización.
- Clasificación y organización de los datos y operaciones de tratamiento en base a perfiles de acceso.
- El cifrado por defecto de modo que el estado “natural” de los datos en caso de pérdida o robo sea “ilegible”.
- La destrucción segura y garantizada de la información al final de su ciclo de vida.

### 3.1.6 Visibilidad y transparencia

Para las personas físicas debe quedar totalmente claro que se están recogiendo, utilizando, consultando o tratando de otra manera datos personales que les conciernen, así como la medida en que dichos datos son o serán tratados.

Fomentar la trasparencia y la visibilidad pasa por adoptar una serie de medidas como:

- Hacer públicas las políticas de privacidad y protección de datos que rigen el funcionamiento del Ayuntamiento.
- Desarrollar y publicar cláusulas de información concisas, claras e inteligibles, que sean fácilmente accesibles y que permitan a los interesados comprender el alcance del tratamiento de sus datos, los riesgos a los que pueden verse expuestos, así como el modo de hacer valer sus derechos en materia de protección de datos.
- Hacer pública, o al menos fácilmente accesible para los interesados, la lista de los tratamientos realizados en la organización.
- Difundir la identidad y contacto de la persona responsable en la organización de los asuntos en materia de privacidad.
- Establecer mecanismos de comunicación, compensación y reclamación accesibles, sencillos y efectivos dirigidos a los titulares de los datos.

12346n I

### 3.1.7 Erabiltzaileen pribatutasuna errespetatzea: erabiltzailean oinarritutako ikusmoldea mantentzea

Diseinutiko pribatutasunaren xede nagusia da datuen tratamenduaren xede diren datuen jabe diren erabiltzaileen eskubideak eta askatasunak bermatzea; hortaz, Udalak egindako prozesu, aplikazio eta abar guztiak, gutxienez, honako alderdi hauetan oinarritu behar dira:

- Pribatutasun-ezarpen lehenetsi “sendoak” ezartzea, zeinetan erabiltzaileei jakinaraziko zaizkien ezarritako parametroak aldatzeak pribatutasunean izan ditzakeen ondorioak.
- Informazio oso eta egokia ematea, onespena informatuta, askatasunez, espezifikoki eta zalantzarik gabe eman dezaten; eta esplizitua izan beharko du hala eskatzen denean.
- Interesdunei beren datuetarako eta egindako tratamenduaren eta komunikazioen xedeen informazio zehatzerako irispidea ematea.
- Mekanismo efizienteak eta eraginkorrak ezartzea, interesdunek datuen babesaren arloan dituzten eskubideak erabiltzea ahalbidetzeko.

### 3.1.7 Respeto por la privacidad de los usuarios: mantener un enfoque centrado en el usuario

El objeto principal de la privacidad desde el diseño es garantizar los derechos y libertades de los usuarios cuyos datos son objeto de tratamiento, por lo que cualquier medida adoptada debe ir encaminada a garantizar su privacidad, por lo que, todo diseño de procesos, aplicaciones etc. llevado a cabo por el Ayuntamiento, debe centrarse al menos, en los siguientes aspectos:

- Implementar configuraciones de privacidad por defecto “robustas” y en las que se informe a los usuarios de las consecuencias a su privacidad que supone la modificación de los parámetros prestablecidos.
- Facilitar información completa y adecuada que conduzca a un consentimiento informado, libre, específico e inequívoco que deberá ser explícito en aquellos casos en que se requiera.
- Proporcionar a los interesados acceso a sus datos y a la información detallada de las finalidades del tratamiento y de las comunicaciones realizadas.
- Implementar mecanismos eficientes y efectivos que permitan a los interesados el ejercicio de sus derechos en materia de protección de datos.

### 3.1.8 Aintzat hartu beharrekoak

Donostiako Udalak zehaztuko ditu tratamenduen segurtasuna bermatzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak, eta neurri horiek diseinu fasetik aplikatuko dira, egikaritzeak iraun bitartean.

Tratamenduari aplikatu beharreko neurriak zehatzeko, Udalak aintzat hartu beharko ditu elementu hauek, DBEOaren 25. artikuluan zehaztutakoari jarraituz:

- Teknikaren egoera.
- Aplikazioaren kostua eta izaera.
- Tratamenduaren eremua, testuingurua eta xedeak.

### 3.1.8 Elementos que deben tenerse en cuenta

El Ayuntamiento de San Sebastián, determinará las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad de los tratamientos-medidas que se aplicarán desde la fase de diseño y durante toda la ejecución de este-.

A la hora de determinar las medidas aplicables al tratamiento, el Ayuntamiento, deberá tener en cuenta los siguientes elementos, de conformidad con lo establecido en el artículo 25 del RGPD:

- El estado de la técnica.
- El coste de la aplicación y la naturaleza.
- El ámbito, contexto y fines del tratamiento.
- Los riesgos de diversa probabilidad y gravedad

12346n I

- Askotariko probabilitateko eta larritasuneko arriskuak, tratamenduak pertsona fisikoen eskubideei eta askatasunei dakarkiena.

## 4. PRIBATUTASUN LEHENETSIA

Donostiako Udalak neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak aplikatuko ditu, bermatzeko besterik adierazi ezean, tratamenduaren xede espezifikoetarako behar diren datu pertsonalak bakarrik tratatzen direla. Betebehar hori betetzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Bildutako datu pertsonalen kantitatea: Donostiako Udalak aintzat hartu beharko ditu tratamenduaren xedeetarako behar den datu pertsonalen bolumena eta datu pertsonalen motak, kategoriak eta xehetasun-maila, baita arriskuak ere, eta ez du bilduko tratamenduaren xederako behar direnak baino datu gehiago.

Hau da, datu pertsonalen kategoria batzuk beharrezkoak ez badira, eta datu zehatzik behar ez bada nahikoa delako xehetasun gutxiagoko datuak erabiltzea, ez da gehiegizko datu pertsonalik bilduko. Horretarako, Udalak prozedurak ezarriko ditu, eta erabiltzaileen artean ezagutaraziko ditu.

- Tratamenduaren hedadura: Datu pertsonalak biltzean zituzten xede legitimoetarako soilik tratatu ahalko dira, eta ez beste edozertarako. Datu pertsonal jakin batzuk xede zehatz baterako beharrezkoa izateak ez dakar datu horiei edozein tratamendu-eragiketa aplikatu ahal izatea, edozein maiztasunekin.

Donostiako Udalak behar diren prozedurak ezarriko ditu erabiltzaileek interesdunen datu pertsonalen tratamenduaren mugak ezagutu ditzaten, eta beste xederen batekin erabiltzea saihesteko.

- Kontserbazio-epea: Bildutako datu pertsonalak

que entraña el tratamiento para los derechos y libertades de las personas físicas.

## 4. PRIVACIDAD POR DEFECTO

El Ayuntamiento de San Sebastián, aplicará las medidas técnicas y organizativas apropiadas con miras a garantizar que, por defecto, solo sean objeto de tratamiento, los datos personales que sean necesarios para cada uno de los fines específicos del tratamiento. Para el cumplimiento de esta obligación se tendrán en consideración:

- Cantidad de datos personales recogidos: El Ayuntamiento de San Sebastián, debe tener en cuenta tanto el volumen de datos personales como los tipos, categorías y nivel de detalle de los datos personales necesarios para los fines del tratamiento, así como los riesgos, y no recabará más datos de los necesarios para la finalidad del tratamiento.

  Es decir, si algunas categorías de datos personales son innecesarias o si no hacen falta datos detallados porque es suficiente utilizar datos menos pormenorizados, no se recogerán datos personales excesivos. Para ello, el Ayuntamiento implementará procedimientos que dará a conocer entre sus usuarios,

- Extensión del tratamiento: Los datos personales sólo pueden ser tratados para las finalidades legítimas para las que hayan sido recabados, no pudiendo ser utilizados con otros fines. El hecho de que determinados datos personales sean necesarios para una determinada finalidad no implica que se puedan aplicar todo tipo de operaciones de tratamiento a dichos datos ni con cualquier frecuencia.

  El Ayuntamiento de San Sebastián establecerá los procedimientos necesarios para que los usuarios conozcan los límites del tratamiento de los datos personales de los interesados, y para impedir que puedan ser usados con fines distintos.

- Plazo de conservación: Los datos personales

12346n I

ez dira kontserbatu tratamenduaren xederako beharrezkoa ez bada, xede bateragarririk edo oinarri juridikorik ezean.

recogidos no se conservarán si no es necesario para la finalidad del tratamiento y no hay otro fin compatible ni fundamento jurídico.

Donostiako Udalak prozedurak ezarriko ditu kontserbazio-epeak zehazteko, 5/2022 Legean, ekainaren 23koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearenean, xedatutako epeei jarraituz.

El Ayuntamiento de San Sebastián establecerá procedimientos para establecer plazos de conservación, atendiendo a los plazos establecidos en la Ley 5/2022, de 23 de junio, de Gestión Documental Integral y Patrimonio Documental de la Comunidad Autónoma del País Vasco

- Irisgarritasuna: Donostiako Udalak, beharren ebaluazioan oinarrituta, datu pertsonaletarako irispidea mugatuko du, behar dutenetara, behar dutenetan. Udaleko alorreko/saileko erabiltzaileren batek bere funtzioak bete baditzake interesdunen datu pertsonalak ezagutu gabe, informaziora datu horiek ikusi edo tratatu gabe sartu ahal izan beharko luke.

- Accesibilidad: El Ayuntamiento de San Sebastián, en base a una evaluación de necesidades limitará el acceso a los datos personales, a aquellos usuarios que lo necesiten y cuando lo necesite. Si algún usuario del área/departamento del Ayuntamiento, puede desarrollar sus funciones sin conocer los datos personales de los interesados, se debería acceder a la información sin posibilidad de visualizar o tratar este tipo de datos.

12346n I

## 5. NEURRIEN APLIKAZIO ERAGINKORRA

Donostiako Udalak neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu bermatzeko diseinutik eta besterik adierazi ezean tratamenduaren xede espezifiko bakoitzerako behar diren datu pertsonalak soilik prozesatzen direla, adibidez:

## 5. APLICACIÓN EFECTIVA DE MEDIDAS

El Ayuntamiento de San Sebastián, aplicará medidas técnicas y organizativas para garantizar que, por diseño y por defecto, sólo se procesen los datos personales necesarios para cada finalidad específica del tratamiento, tales como:

### 5.1 Gardentasuna

Donostiako Udalak ukitutakoei jakinarazi egingo die nola bilduko, erabiliko eta partekatuko diren bere haien datu pertsonalak. Gardentasuna datza erraztean interesdunek uler ditzaten eta, hala badagokio, erabil ditzaten 15. artikulutik 22. artikulura aitortutako eskubideak.

Gardentasun printzipioa aplikagarria izango da, edozein dela ere tratamenduaren bitartekoa –aplikazioak, online formularioak, bideozaintza eta abar–.

### 5.1 Transparencia

El Ayuntamiento de San Sebastián informará a las personas afectadas acerca de cómo se recogerán, usarán y compartirán los datos personales. La transparencia consiste en facilitar que los interesados entiendan y, en su caso, ejerzan los derechos que tienen reconocidos en los artículos 15 a 22.

El principio de transparencia será aplicable, con independencia del medio de tratamiento -aplicaciones, formularios online, videovigilancia…-.

### 5.2 Datuak minimizatzea

### 5.2 Minimización de datos

Aproposak, egokiak eta aurreikusitako xedeetarako beharrezkoak direnera mugatuak diren datu pertsonalak tratatuko dira soilik. Horretarako, Donostiako Udalak zorrotz aztertuko du zeintzuk diren benetan beharrezkoak, eta ahalegina egingo du tratamendurako erabilitako bitartekoek ez dezaten izan eremurik aproposa edo egokia ez den informaziorik biltzeko, edo lortu nahi den xederako gehiegizkoa denik.

Solo se tratarán datos personales que sean adecuados, pertinentes y limitados a lo que sea necesario para los fines previstos. Para ello, el Ayuntamiento de San Sebastián, realizará un análisis de cuáles son los datos realmente necesarios y se procurará que los medios empleados para su tratamiento no contengan campos que permitan almacenar información que no sea adecuada, pertinente o resulte excesiva para la finalidad pretendida.

### 5.3 Kontserbazio-epea mugatzea

Donostiako Udalak datu pertsonalak mantenduko ditu, interesdunak identifikatu ahal izateko, tratamenduaren xedeetarako behar den denborarako soilik.

### 5.3 Limitación del plazo de conservación

El Ayuntamiento de San Sebastián, mantendrá los datos personales de forma que se permita la identificación de los interesados durante no más tiempo del necesario para los fines del tratamiento.

### 5.4 Osotasuna eta konfidentzialtasuna

Donostiako Udalak neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak hartuko ditu tratamendu baimenik gabea edo legez kanpokoa saihesteko, baita ustekabeko galeren, suntsiketen eta kalteen aurkakoak ere, tratatutako datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko.

Diseinutiko pribatutasunaren eta pribatutasun lehenetsiaren printzipioak espezifikoki tratamenduaren arduradunari aplikatzen bazaizkio ere, ezinbestekoa da kontuan hartzea datu pertsonalen tratamenduan parte hartzen duten beste eragile batzuetara ere hedatu behar direla, esaterako, zerbitzu-hornitzaileei eta -emaileei, produktuen eta aplikazioen garatzaileei eta gailuen fabrikatzaileei, esaterako.

### 5.4 Integridad y confidencialidad

El Ayuntamiento de San Sebastián, adoptará las medidas técnicas y organizativas adecuadas para evitar el tratamiento no autorizado o ilícito y contra pérdidas, destrucción o daños accidentales, en aras a garantizar la integridad y confidencialidad de los datos tratados.

Si bien el cumplimiento de los principios de privacidad desde el diseño y por defecto se aplica específicamente al responsable del tratamiento, es necesario tener en cuenta que, su aplicación debe proyectarse también sobre otros actores participantes en el tratamiento de datos personales como son los proveedores y prestadores de servicios, desarrolladores de productos y aplicaciones o fabricantes de dispositivos.

## 6. BETETZEA BERRIKUSTEA ETA AKREDITATZEA

Donostiako Udalak egiaztatu egingo du era egokian aplikatu direla diseinutiko pribatutasunaren eta pribatutasun lehenetsiaren printzipioak betetzeko neurri egokiak, jarraian deskribatutako kontrolak aplikatuz:

## 6. REVISIÓN Y ACREDITACIÓN DEL CUMPLIMIENTO

El Ayuntamiento de San Sebastián llevará a cabo una verificación de que se han aplicado correctamente las medidas adecuadas para cumplir con los principios de privacidad desde el diseño y por defecto, mediante la aplicación de distintos controles que se describen a continuación:

12346n I

- Idatziz jasota utziko ditu diseinutiko pribatutasunerako eta pribatutasun lehenetsirako hartutako neurriak eta datuak babesteko politika, segurtasun-arrakaletarako prozedurak eta abar.

- Datuen babesari buruzko auditoretzak egingo ditu, egiaztatzeko araudia era egokian betetzen dela.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzako neurrien eraginkortasuna erregulartasunez egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesu bat ezarriko du.

- Erantzukizunak esleituko dizkio jardueren edo tratamenduen jabeei, diseinutiko pribatutasunaren printzipioa betetzeko. Erantzukizun horien xedeak izan beharko du datuak minimizatzearen printzipioa betetzen dela egiaztatzea.

- Sistemen alorreko arduraduna izendatuko du, aplikatu beharreko segurtasun neurriak koordinatzeaz arduratuko dena, pribatutasun lehenetsiaren printzipioak eta tratamendua jasoko duten datuen kategoria aintzat hartuta.

- Datuak babesteko udaleko organu ordezkaria arduratuko da tratamenduen jabeek eta sistemen alorreko arduradunek egindako jarduketak gainbegiratzeaz eta baliozkotzeaz.

- Documentará por escrito las medidas de privacidad desde el diseño y por defecto adoptadas-Política de protección de datos, procedimiento de brechas de seguridad…

- Realizará auditorías de protección de datos con el objeto de verificar el adecuado cumplimiento de la normativa.

- Implementará un proceso de verificación, evaluación y valoración regular de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

- Asignará responsabilidades a los propietarios de las distintas actividades o tratamientos para dar cumplimiento al principio de privacidad desde el diseño. Estas responsabilidades deberán estarán encaminadas en verificar que se cumple el principio de minimización de datos.

- Designará un responsable del área de Sistemas encargado de coordinar medidas de seguridad a aplicar teniendo en cuenta los principios de privacidad por defecto y la categoría de datos sujetos a tratamiento.

- El Órgano Delegado de Protección de datos del Ayuntamiento, será el encargado de supervisar y validar las actuaciones llevadas a cabo por los propietarios de los tratamientos y los responsables del área de sistemas.

12346n I